

Aholkularitza zerbitzu berri bat abiatu da ikasturte honetako Liburuen Altxorra egitasmoarekin batera. Kontutan hartu genuen Altxorra iristen zen eskola askoren kopurua handitu egin zela erruz eta dinamizatzaileen lana ia ezinezkoa suertatzen zela ikastetxe horietan eta Aholkularitza zerbitzu bat eraikitzea pentsatu genuen.

Batetik, erabaki genuen neurri batetik aurrerako ikastetxeetan ikasleekin egiten ziren dinamizazioak eten eta eskola horietako irakasleekin **dinamizazio saio bat** antolatzea. Horrela, aurtengo altxorreko hainbat liburu aukeratu ziren eta irizpide literario eta pedagogikoak erabiliz, dinamizazio saio batzuk prestatu ziren irakasleekin ospatzeko, saio hauek dinamizatzaileek ospatzen dituzte eskola horietako klaustroekin batera. Aldi berean, aholkularitza inguruan lanean hasi zen talde bat: Arantza Baltzategi, Pio Azkarate eta Itziar Zubizarreta. Aholkularitzan parte hartzen zuten irakasle zein eskola guztietan, kontsulta aukera zuten taldekideekin.

Beste alde batetik, Aholkularitza taldean, etengabeko lan bat eraman da ikasturte osoan, **irakurzaletasuna suspertzeko teknikak irakasleei helarazteko**. Liburuei buruzko irizpideak antolatzeko eta liburuen aurkezpen eta bitartekarien lanari dagozkien teknikak azaltzeko asmoarekin bideratu da batez ere taldearen ahalegina.

Bi fruitu nabarmenduko nituzke talde honen lana azaltzeko:

- **Bibliografia hautatu bat**. Adinez sailkatutako bibliografia bat da hau, liburu guztiak irakurriak daude eta irizpide desberdinen arabera galbahea pasa duten liburuak dira. Zenbaitetan ikasleen gustua, beste hainbatetan, bitartekaritza behar duten liburuak eta hainbatetan, ikasleen gustua soilik eduki dugu kontutan. Zerrenda eta web gunean azaltzen den informazioa egun hauetan burutuko dugun lan bat da. Edozeinek kontsulta dezake zerrenda hau, liburutegia hornitzeko lana hartzen duenean.
- **Jardunaldi batzuk urtero ospatzea**. Bi alorri heltzen diegu jardunaldi hauetan; bibliografia eta irakurketarekin loturik dauden teknikei buruzko atala eta liburutegiaren dinamizazioari buruzkoa.

Jardunaldiak Eibar eta Durangoko Berritzeguneetan ospatu ziren, otsailaren 26 eta 27an eta martxoaren 26 eta 27an. Gutxi gora behera ondoko eskemari heldu genion horretarako:

- Bibliografia egoki bat eskaintzea
- Liburuak nola baloratu
- Liburutegia nola dinamizatu

Jardunaldietan, 30 bat irakasle bildu genituen bi goizetan, guretzat oso ekimen positiboa izan zen. Besteak beste, irakasleek erakutsi zuten gaiari buruzko interesa eta gure egitasmoarekiko balorazio baikorra.

Jarduerei buruko galdeketan, egoki eta oso egokitzat hartu zituzten gure proposamenak; zabaldu genituen ideien praktikotasuna azpimarratu zuten. Baloratzen zuten oso goitik erabili genituen gaiak: irakurketa sustatzeko teknikak, liburuei buruzko informazioa, liburutegiaren dinamizazioa eta liburutegiaren antolaketa.

Oharretan azpimarratu nahi ditugu haien iradokizunak, hurrengo ikasturtearen egitaraua antolatzeko.

- Irakurri eta ipuinak kontatzeko teknikak jorratu
- Irakurketa ozena egiteko irizpideak
- Haur hezkuntzari gehiago begiratzea saioetan
- Liburutegi baten erabileraren adibideak

Baita ere, hainbat irakasle azpimarratu zuten saio gehiago behar zituztela, informazio gehiegizkoa metatzen zela denbora gutxian eta ideien trukaketak egitea ere estimagarria izango zela.

Hilabete honetan hasiko gara taldean egin dugun lana baloratu eta aurrerabideak ezartzen datorren urtean, gogoz hasteko berriz ere.